

Orio	Uztailak 16-22	9-11 urte	Euskara
------	----------------	-----------	---------

Uztailak 16	Ongietorri! 3 lurraldeetako autobusak etortzen diren bitartean, aterpetxera heldu bezain pronto, maletak utzi eta ezagutza jolasak egingo ditugu guztiak egon arte. Ondoren udalekuaren aurkezpena egingo dugu eta aterpetxea ezagutuko dugu. Arau orokorrak eta jantokiko arauak azaldu ostean, bazkaltzera abiatuko gara. Arratsaldean berriz, taldeak egingo ditugu eta talde txikietan jolas ezberdinak egingo ditugu elkar ezagutzen juteko. Gauean ordea, musikariak bilatu beharko ditugu.		
Uztailak 17	Euskal Herriko pertsonai bat ezagutuko dugu eta egunean zehar egindako ekintzak zerikusia izango dute bere lanbidearekin.		
Uztailak 18	Gaurkoan, pertsona bakarra ezagutu beharrean, talde bat ezagutuko dugu. Herria ezagutzera joango gara eta jolas ezberdinak egingo ditugu bertan.		
Uztailak 19	Zer dira udaleku batzuk pirata egunik gabe?		
Uztailak 20	Mendizale ospetsuak bezala, tipi-tapa mendi irteeratxo bat egingo dugu.		
Uztailak 21	Bazenekien Euskal Herrian ere abentura zale eta espioi bat egon zela? Ezagutu nahi duzu eta bera bezala abenturaz beteriko egun bat pasa?		
Uztailak 22	Azken eguna da eta logelak eta ingurua jaso, maletak egin, balorazio txiki bat egingo dugu eta etxera emateko oroigarri bat ere.		

***Oharra:** euria egiten duen egunetarako beste ekintza batzuk programatu ditugu.